



Lana / La obra

Bakarrik jaio eta bakarrik hiltzen gara. Bitartean, hari ikusezin baten gainean orekari eusten saiatzen gara eta argazkiak ateratzen dizkigute. Gu argazkitakoak izaten saiatzen gara, baina ez gara. Gu argazkiaren atzean dagoena gara, irudiaren ertzetatik kanpo dagoena, eta bizitza ez da lerro zuzen bat, ibili ahala etengabe josten eta askatzen ari garen armiarma-sarea baizik.

Ipuin-bilduma honetako pertsonaiak amaraun horretan bertan daude harrapatuta, beren beldur eta frustrazioekin, beren amets eta esperantzekin. Patua izan da aurreikusi ezin zuten egoera horretara eraman dituen, une ahulenean erabakitzerara behartu dituen, kameraren objektiboaren aurrean irribarre egitera behartu dituen.

Baina ez lukete han egon behar.

Fitxa tekniko / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Baina ez lukete han egon behar**

Egilea / Autor: **Asier Osinalde Vidal**

Saila / Colección: Narratiba, 102

ISBN / EAN: 978-84-9109-213-1

Salneurria / Precio: 15 € (BEZ barne – IVA incluído)

Orri kopurua / N° páginas: 160

Formatua / Formato: 15 x 22 cm



Egilea / El autor

Asier Osinalde Vidal (Donostia, 1975). Ingeniaritza teknikoa ikasi du, baina ez da ingeniaria. Bizikleta gainean kilometro asko egin ditu, baina ez da txirrindularia. Poemak, abestiak eta film laburrak egin ditu, baina ez da ez poeta, ez musikaria, ezta zine-zuzendaria ere.

Egun irakaslea da Donostiako Iralen eta *Baina ez lukete han egon behar* hau du lehen ipuin-bilduma.